Euzkadi

Gure olerkari gartsua

Arrese-Beiti'n omenez, gaur, or Otxandio'ko kalean
Yai polit eta atsegingarri, alai, osppatsu orretan
Euskalerritar asko batuta zagozen ordu bercan,
Boa biotzen laztan gozoa aren oroimengarritzat.

Euskaldun leyal, zoli, trebea, Arrese-Beiti omen zan,
Euskeraz alde bere biotzaz, bere gogoaz lan ta lan,
Nekatu barik, atseden baga, illarteraño yardunaz.
Berau langoak bear gendukez gure aberri maitean.

Zeruan gabaz iretargiak diz-diz egiten daben lez.
Arrese-Beiti'n biotz gartsuak, bein barrez ta bein naigabez,
Euskotarrai erakutsirik beren legeak maitatzen,
Euskalerri'ko illuntasunak urratu zitun zorionez.

Erle langille urduritsuak lora barrena sarturik,
Ezti goxoa egiten dute erlauntz sarean poliki;
Era berean gure Emeteri maite ta askarrak, irrintziz,
Euskal erlauntza goxatu eban euskal izkuntzaren eztiz.

Elai ariñak egaz diyoaz lur azaletik zearka,
Euren gorputzaz laztandurikan errekaztoen ur otza;
Gure Arrese yayoak bere, olerki bidez ekiñaz,
Maite maitero laztandu eban euskera amaren biotza.

Mitxeletak be, udabarrian, lorarik lora dabiltza
Euren egoen edertasunaz landa basoak yantziaz;
Onen antzean Arrese onak, bere izneurtu apaiñaz,
Billozik zegon Ama laztana yantziz edertu euskuan.

Artxo zuriak apaltasuna agertzen dausku ludian
Berau besteko abere onik ez ei dau sortu Goikoa'k
Alperrik baña, otzantasuna, Bere Altasun andiaz,
Gaiñez yarri zun Goiko Jaun onak Arrese'n olerkietan.

Uso samurrak maitetasuna nunnai zabaldu daroa,
Egille Altsuak ekandu orrez edertu eban usoa
Baña ludiko uso guztien maitetasunak batera
Eleye estaldu Arrese-Beiti'n olerkietan doguna.

Iturritxoak garbitasuna dikur bere ur gardenaz
Ispillu orren argitasunak azaltzen dausku txukuna;
Arrese-Beitia'n eusko gogoan dana da garbi ta aratza,
Bere izneurtuak agertzen dabe araztasunen lorratza.

Artzaiñora da artzaiñarentzat aiskide leyal, zintzoa,
Beren itzalaz urrinduten dau artaldetatik otsoa,
Artzaiñorak lez, gure izkuntzak be, bere barruko beroaz,
Aldendu leike Euskalerri'tik lizunkerien izotza.
Au ikusirik olerkariak, goruntz gogoa yasota,
Euskal olerki bero ta sutsuz itxartu eban euskoa.

¡Euskaldun onak! ¡Yagi lotatik! Itxar zaiteze beingoan
¡Gora biotzak! ¡Yarraitu beti guraso zaarren bidean!
Arrese-Beiti'n gogo sendoa gidari dogu zeruan,
Gure menciak zutik daudela ez bildur izan sekulan.

Edertu daigun gure izkuntzea, mintzatu beti euskera,
Itxi alde bat erdaikeriak, bota gugandik lizuna,
Urrindu bitez gure ondotik koldar, euskaldun ustelak.
Euskera ilten ari diranai ez toki emon gurean,
Bizi gaitezan Euskalerria'n nasai ta bake donean
Maitetasun bi zintzo gorderik gure biotz barrenean
Jaungoikoa ta Euskal legeak. ¡Eutsin orreri, mutillak!
Alantxe egiñik izango gara Arrese-Beiti langoak.

ARRUGAIN.
("Euskaltzaleak" Bazkunakoa).

ERRIETATIK

Arrese ta Beitia, olerkari ospatsuari

Itun aurkitzen dira Aitor'en semiak,
Itunik zar zintzuak, poz barik gustijak...
Itun ibir, larru ta geure euzko mendijak...
Negar malkoz beterik Amaren begijak!...

Gorbea! iotsatuta zakuscaz tamalez...
Zu barriz, o Anboto, lur-pian sar-nairik,
Zer gertatzen jatzule? Esan, arren, neurri
"Euzko seme geyenak, euzkerarik nai ez"

Uri aundijenetan ezetsi ondoren
Igesika Euzkera gogo-itun or dabil...
Amarik on-onena semiak ez nairik...
Maite biar leukenak bera saminduten!!

Uritik erritxora, erritik mendira,
Eskeko txiro bat lez aberatxa dana...
Zer ikusten dot, ene Amatxo laztana?
Maitalerik eztozu? Semiak nun dira?...
Ekatx ondoren gentza:
Arantzan larrosa...
Ituntasunak bere
Garrai dakar poza.

Semetxo batek nai dau Ama poztutia,
Entzun gogoz bijotzez dagijon eskintza:
Bera galdu baño len, nai au erijotza:
orra or argi nor zan Arrese Beitia.

Euskaldun jayo nintzan, euskalduna asi,
Euskara utsik amak eustan irakatsi;
Euskara maite-maite zabiltz neugaz beti,
Euskara ill ezkero ez dot gura bixi.

Amaren bijotz ona bete da poz-pozez,
Irribarre gozo bat daitsoe begijak;
Poztu dira baita be geure euzko mendijak,
Poztu gaitezen orok poztu bai gogo onez.

EUKENI.

ARRESE TA BEITIA ZANAREN JAIRAKO ARPIDEA

Laurleko

Lendik	2.272,35
Goikolea'tar Imanol	5
Axuriagerra'tar Augustin ...	5
Larrinaga'tar Karla	5
X. X.	3
Basaguren'dar Joseba Domeka	5
Egia'tar Toma	7,50
Armendariz'tar Kepa	5
Tellaetxea'tar Kepe	10
Otxandiotar bat	5
Gandasegi'tar Polone	0,50
Elgea'tar Lukene	1
Solaun'dar Jon	5
Arbeloa'tar Koldobika	10
Armendariz'tar Todor	5
A. J.	5
Muxika'tar Joseba	3
Urrutia'tar Alberta	5
Biziola'tar Simon	15
Bengoa'tar J.	5
Bengoa'tar Miren	2
Zearra'tar Kepa	10
Zubizarreta'tar Peli	5
Guztitara	2.394,35

OTZANDIYO

ARRESE'REN OMENA DALA-TA

Sazpi urte onetako io sorrua igaro orduan, nere nagiyak oe onduan itxita zeozertxo azaltzea gogoratu yat. Nire yakinmaite onetan, yarraiturik beti bide zuzenetik eldu arte geure atsegiñerarte.

ANDIKONA.

✤ ✤ ✤

ARRESE TA BEITIA OLERKARIYA

Gaztetatik bere mutiko lagun artian olerkiyak abestuten zituan, baña etzan esagutu Euskal-errian olerkari lez ogetamazortzi urterarte.

1879'g'n urtian Naparru'ko Euskel Bazkuniak eta Bicaso beste aldetiko Mr. d'Abbadie yakintsuak eraldu ebezan Elizondon Euskel-yai batzuk eta euskal-olerkirik onenentzat zari eder bat iragarri eben. Zelan bait yakin dau gure Pilipa'k baita beste olerkari asko be aurkeztu ziran Euskal-erri guztitik sari nausiya irabesteko asmoz, baña epalmaiyak Arrese ta Beitiak aurkezturiko "Ama Euskeriari azken agurrak" deritxon olerkija zaritu eban. Au izan zan gure erriko seme onen lenngo garaitzia ta Euskal-erriko olerkaririk punta rengotzat iragarri zan. Txalo ugariyak eta poz agurrik zutsuenak emon eutsenzan bere lan ederragaitik eta Kanpion yaunak besarkatuta esan eutson. Zelan atondu zara ori gauza eder ori egiteko? Eta gure Pilipa andi ta apalak erantzun eutsan: Biyotzetik urten deusta, yauna. ¡Egiya, ta andiya! Biyotzez abestu daben olerkaririk izan bada iñun, Arrese ta Beitia izan da. Kanpion yaunak iñuan lez, eun olerkiyen artian beriala ezagutuko leukiala zeiñ dau Arrese'na 1880'gn urtian Mauleon'en egin ziran euskal yaitan be iragarri ziran olerki zariyak. Yuan zan ara be gure Pilipa ta aurkeztu eban "Bizi da Ama euskera" deritxon olerkiya ta zaritua izan zan.

Olerkari bikaiñen ospea artu eban lez, Bilbao'ko Eusko Batzokitik dei egin eutsoen gertauta euken yai baterako atara egizaia olerki batzuk. Yuan zan eta irakurri eban "Arbola bat" deritxon olerki eder-ederra ta zari andi bat emon eutsoen. Ordutik aurrera berarizko zaletasunagaz azi zan olerkiyak idazten. Biotzeko gauzak ugari ta zamurrak diran lez alan ziran Pilipa'ren olerkiyak be; eta zeozegaz bardindu gura ba'geunke, ur gozota ugariya yariyon iturriyagaz bardindu biarko genduke. Or dabil eskurik-esku bere "Ama Euskeriaren liburu kantaria" eun eta ogetabost olerkigaz sei zatitan banatuta Arakatu guztiya ta auznartu ondo ta nai ta ez esan biarko dau, orain arteko euzko-olerkari guztiyen artian bikaiñena Arrese ta Beitia'tar Pilipa dala.

¡Aintza olerkariyen Erkabia'ri!

BEKOLETA.

MAÑARI

ARRESE TA BEITIA

Gaur, olerkari bikaiñ-bikaiña zanaren omenez, Otzandiyo'n izango yaiyen aibo erriyetatik eta urriñetatik be lagunik asko batuko da uri begiko aretan. An egingo diran yai ospatsuakaz abertzale ta euzkeltzale guztiyoen biotzak poz-pozik gelduko dira. Geure asabeen euzko-odol garbi ta sendua zanetan bizi-bizi daruagunok nai ta ez poztu biar gara ta.

Baita gaur, Otzandiyo'ra igaroko diran abertzale aldra zintzo batzuk, geure Kirikiño maitearen illobi txiro-txiroan lora-uztai eder bat opalduko dabe; ta maitasunezko mosu gozoak lez euzkotar andiya'ren gorpua datzan lur ongillia lora txorta guriyak laztanduko dabe.

Otaitzarik asko be bere gogo-aldez Yauna'ganduko da.

YUAN-ETORRI

Igande arratsaldian egon ziran emen euren tarrantian etorrita Jemein'dar Keperin da eta Errazti'tar Yoseba Mirena abertzale zintzuak, eureen emaztiak eta Errazti yauna'ren umetxo politak.

—Eguaztenian egon zan emen Agirre'tar Yon Larrabetsu'ko txaunburu yauna.

—Logroño'ra yuan zan Gonzalez'tar Elbire anderea.

—Egun bat edo biyan Urkiola'n egon da Atutxa'tar Kepa Abadiño'ko txaunburu yauna.

—Galdakao'ko yaiyetan izan ziran Ozerin'dar Peli emaztiaz, Ozerin'dar Keperiñe ta Untzalu'tar Todor bere alabatxuaz.

—Bilbo'tik etorrita egun batzuk igaroten dago Biñarte'tar Bitore neskatillia.

—Dima'tik etorri zan Ramirez'tar Domeka.

—Egun batzuetan dago emen Amantegi'tar Kermeilde andrea.

ELEIZKIZUNAK

Iragarri zan lez, igaro zan igandian Miren-alabak eureen batzarreko urteko yairik andiyenetakua ospatu eben. Goizian Yaunartze ugariyak izan ziran; zazpiretako mezan batzarreko guztiyak eta beste asko urreratu ziran Mai-Deunera. Meza ta Yaunartze bitartian soñuak lagunduta neskatillatxu batzuk abesti ederrak polito asko abestu ebezan.

Arratsaldian, besperak egin ziran; eta Agurtza deuna abestuaz ibildeuna (prosesiñua) Kurutze-Santu'tik egin zan. Murgoitio Aita Yosuiaunak (Jesuitiak) berbaldiya alako ederto egiñ eban. Batzarrian, ogei batzarkide barri sartu ziran.

✤ ✤ ✤

Igandeko ordez, astelenian Gurutza Deuna'ren opaz Kurutze-Santu'ko ermintan goizeko zortziretan emon zan mezia. Aimbat lagun eldu zan.

IRÁK

Eldu da ba ira-ebaite aldiya. Udabarri ta uda-onetan sarri yausi diran eurite ugariyakaz ondo ureztauta, iratza andi ta ederrak egin dira. Egunokaz, ira-epailla asko ikusten da baso-mendiyetan amoreoniyu zintzo-zintzo biarrian dabiltzala. Illonetan eta bestian gure baserritarrak azpigarriyak etxeratu arte lanik eta nekerik asko erabiliko dabe.

Ganostera edo Dima basuetara doiazanak, astelen goizaldetan santzue ta berbie ugari dabiela yuaten dira; ta sapatu illuntzirarte basuan ibilten dira. Mendiyan egoten diran arren, erriyan gagozanok baño be barririk geiyago yakin eta ekarten dabe; ikusirikuak, entzunikuak eta asmaurikuak zertzelada guztiyakaz edestuten igan dia emoten dabe.

Orrenbeste barri ta gauza yakiteko "erradio" "telepono" edo beste tramankulu miragarriyen bat badabe. Edo... eureen artian beste mutiko bizkorren batzuk dabilz. Akelarre be urrian dago ta...

Basuan ibiltaldi luziak egiteko aldirik eder eta alaiyena ointxe udagoiyenian da. Guazen ba...

GEIXORIK

Eleizakuak artuta geixorik oso txarto dago Barrenetxea'tar Nemese andrea. Osa suna opa dautsogu.

¡BAI ASMAU BE!

Igaro zan asteko larunbat arratsaldian, Gazteiz'tik etorrita edo, emen agertu ziran iru mutil gazte polaiña dotoriak soñian eta pardeltxo bana lepotik ziar ebela. Eldu ziraneko aterik-ate eskian asi ziran. Abielako mutillak osasun itxuran eskian ikustian egin geiyagoan ikaratu giñian. Madrille'tik amaika egun bidian igarota etozala, ta munduari bira oñez egiteko asmuan ebiltzala, da gero Parantze, Beljika ta Alemani'ko erriyak ikusi biar ebezala ta barriketie, sasiye ta zarraparrie ugari ekarri eben... Eta dirudunak etzirialako eskian ibili biar ebela ta abar. Orrek guztiyok entzun da, geure artian esan be egin gendun. ¡Mutillak! poltsan dirurik ez da orrenbeste asmu! Askoren adoria geiyago da beste askoren al-izate guztiyak baño.

Nok emon balego, amaika ibiliko litzake biarra alde batera itxi ta polaña dotoriak soñian da pardelak lepuan artuta ortik ziar munduik-aramaiyo. ¡Asmetako be...!

MAÑARIKO.

LEGAZPI'TIK

Berriz ere, berriz ere, laburtuko zaizkigu, aurretik arkatzak. ¡Ez euzkeltzalerik ezpa-lego!, abertzale, abertzale eztanik.

Aldi asko eztala atal onetan bertan argitaldu geban euzkeldun bik ixan zuten aikar-izketa-edo olako zerbait, euzkeltzaletasuna ta abertzaletasuna gai.

Arrezkero bein baño geyagotan arpegira bota dizkigute, idazki ura zala ta beste barik, Aberriaren kaltian diardugula-ta, euzkerarik eztugula nai Aberria baño-ta abar.

¡Geldi or! Gerok eztegu esan iñoz, euzkerarik nai eztugunik. Olakorik oguztau ba-lebe gure espain obenlariak, ezkintzazke abertzaliak ixango "sukotzaliak" ixango gintzazke, eta ezkara gu sukotzaliak, maitik at.

¡Ez bein!

Euzkeltzaliak ezpa-litzaz Sabin'en jarraitzaiak, Bilbao'ko "Euzko-Gaztedi"-kuak etzuten alde orretara begirik ezarriko. Baña euzkeltzale diralako euzko-ikastaruak ematera dijuaz. Eta oyek, ikastaro oyek ematera dijuazenak abertzaliak ditugu, eta Sabin'en jarraitzale zintzo-zintzuak beuren egintzaetan dakusgunez.

Beraz, etzaiguzutela esan iñoz olako kertenkeririk, arren.

✤ ✤ ✤

Uri onek berranei (2.000) biztanle inguru ba-dauzka. Berranei oyetatik 1980 euzko-eledun, Jaungoikuari eskarrak. 1980 euzko-eledun oyetatik, zenbat euroen Aberriagatik besua jasoko leukienak?

Burubarri eragin eta musin-egingo leuzkioenak geyago.

ZAR-ZALE.

SEGURA

Euzkel-izena, "Egunekua"-n.

TXISTULARIAK

Len Zestuan eta orain Altsasun, jo ta kea ateraziak izan bear dute gure txistulari iaio Gaiarza'tar Jazinto, Alkorta'tar Peli eta Telleria'tar Andoni.

JAIOTZA

Aldata barreneko Zurutuza'tar Felipe'ren emazte Lezeta'tar Mariak semea izan du. ¡Zorionak!

AUTARKIAK

Urrengo auteskunde edo botaziotarako autarki edo botoa daukatenen errezkadan 256 autarkidun agiri dira. Ez dakigu besterik izango dan.

ZARRAI OMENA

Igandean udaletxean eman zien udal edo aiutamentuak azkari edo merienda bana, alcundiak (diputazioak) eguneko peseta ematen dien zarrai; jan bitartean soñu alaiak txistulariak joaz.

Eguneko peseta jasotzen dutenak, aitona bat Ugalde'tar Jose Mari eta zazpi amona daude erri onetan. Zazpi amonetatik Blasida, gexo dagoelako etzan etorri, baño beste sei auek bai; Ariztimuño'tar Juana Batista, Berasategi'tar Lina. Aramendi'tar Ana Mari, Arrondo'tar Maria Rosario, Mendizabal'tar Josefa Agustina eta Katarain'tar Florenzia. Benetan jai samur eta biotz-kupigarria izan zan.

ERREMATEA

Urriaren 5'ean, goizeko amaikaterdietan izango da emengo udaletxean "Urbi"ko jatetxearen bi urterako errematea, urteko 700 iauerlekoan.

IRAKASLEA

Udaldiko bere oporraldia igarota etorri zaigu Almandoz - Mendizabal'tar Miren Karmele, neskatxen irakasle iaioa. Baita ere etorri da mutillen irakasle Blanko'tar Eliodoro. ¡Ongi etorri!

AMERIKETARA

Udaldia emen igaro ta atzera beste iru bat urteko Amerika alderako asmoan irtenak dira, Ondorreko Ormazabal'tar Jose ta Aldanondo'tar Eustasi.

JUN-ETORRIAK

Aurreko astean emen izan zan Lardizabal'tar Joseba Mirena jaun ospetsu ta euskaltzaie jatorra, bere sendikoekin.

—Emen agurtu degu Arrua'ko Uranga'tar Miren, laister Zumarraga'ko lekaretxean sartu bear duela ta osaba izebai agur egiten.

—Ustez-uste gabe emen bostekoa estutu diogu, Olaberri'ko tontorretik (aspaldiko ordez) ezker-eskubi idazten gogor ekin dion "euskel-idazle" iaio ta adiskide zar "Zeleta"-ri bere sendikoekin arratsaldea igarotzera etorrita.

—Emen izan zala entzun degu, Zumarraga'ko Lasa'tar Mikel apaiz jaun ta euskaltzale jatorra.

—Pau'n, bigarren txango aldia eginda bere txokoratu zaigu Aseginoiaza'tar Sabina anderaño a.

OTARRA.

ZEANURI

IGANDE 21'AN DANOK OTXANDIO'RA

Emendik eta Arratia guztitik gar andia dago Arrese Beitia Pilipa olerkari andia zanaren omenez yai ospetsuetara yoateko. Batzuk oñez, beste batzuk txirringutzetan, belbil txikitan da baita emen urtetako da belbil auobus nagosia arratsaldeko ordubietan.

Baita emendik yoateko ustea dabe ezpatadantzari aldra biak andiak da txikiak auron txistulariakaz.

Eguerdi aurretik yoan ezkeitiño danok iñondi be yatekoakaz ezin egon leitekez ondo erri arretan. Baña kontu auki bear dabena da illuntzean askok zeozer artu gurako dauala merienda izki edo abar da orretarako gertau yatetxeak iragarkiak artu doguz ta banandu be bai ei. Ormetan be ipiñita dagoz.

Lendik, 25,75 laurleko.
Plaza'tar batek, 5.
Ia mutillek, erduzie zeozegaz.

NASKALDIJA

Burgos'tik bilbelean etorrita emen izanda Rotaetxe Andoni jauna.

Laster meza barria emongo dau Etxebarria Fermin jaupari gazteak.

Gorbei'tik dira, Etxebarria andereño. Gazteiz'tarrak Larrinoa, Intxaurraga da Etxebarria jauparia.

Astelenean Gazteiz'era yoango dira emengo abade geyak.

BASURDEAK ATXONDO'AN

Aurten ezkur gitxi dabe mendietan da oingandik basaurdeak azi dira soloetako artoak yaten.

Joane Atxondo'kori txabola-ondoko ar totzara erdu yakoz. Baita Lanbreabe'ra be bost sei agertu ei dira bandan txiki ta andi.

ZUBI'KO BEARGIÑAK

Emen zubi egiten dagozan beargiñak ur asko urteiten dabela zimintuetan da beste era bat artzeko edo bearrari astelenerarte geratu dira.

ALDUNDI'KO BEARGIÑAK

Alkitzana botaten dabiz. Arregira'ño Diputaziño beargiñak da orain Urraburu'n Zabalanbe bardi egingo dabela uste dogu.

URRUTIZKIÑA BARDIN

Au zuzenduteko eztagola esan leike iñor

EGURALDIA

Lengo aldian auria be polito egin eban da pozik dagoz lugiñak.

BASERRITAR BAT.

BERMEO

Asko poztu naz jakin dodanian eruan gurarik dabiltzazala bertsuak abestuten Otxandio'ra Arrese-Beitia (G. B.) olerkari ospatsuen omen egunian gure lagun andi dan Uriarte'tar Estepan "Utarre". idazle bikaña: ia lagun jun bildur barik eta abestu ama Euzkeria'ri beren edertasunak.

Beasain uri politean eta euren sendian artian egun batzuk igarota biurtu dira gure artera Pilipa ta Joseba Zarriegi anai biak eta euzkeltzale zintzuak; asko poztu gera zuen etorrigaz.

Gijon'etik arrantzan gabiltzala, gexotu nintzan da itxasoratu barik nago aspaldi guztian.

Nere ixiltasunaren ziyua au zan, ez idazteko erriko barriak, onetan jaietan: irakurle, asketsi.

Arrese-Beitia'n omenarako Pilipa Zarriegi lau-erraleko bi. "Urkidik" beste lau-erraleko bi. Ez da arpidedik irigi ta, ez dot uste txindirik batuta egongo danik.

Jai artian egaluzia politxo ekardabe baño; ordutik ona ezdago ezer: oraiñ papardotan jun dira Santander aldera. Asko arrapau neguak arpegi txarra dakarrela.

URKIDI.

AZPEITI

EUZKO ALKARTASUNA

Alkartasun gutxi izan da Euzkal-errian tamalez. Oso antziñatik izan dira euzkaldunen artian alkar eziñ ikusi aundiak, besteren ona zapaldu naiak eta eragozketa aundiak beren asmo eta ongi-aldiak aurrera eramateko. Odol asko izuri zuten euzkaldunak, Oñaz'tar eta Ganboi'tarren andikitasunagatik sortu zituzten gudaketa iguingarri artan: Euzkadi guztia soildu zuten; sendi guztietara negarra eta ondaketa besterik etzuan ekarri gizaldi asko igaro zuan euzko anaien artean zortutako guda macarikatu arek.

Geroztik ere alkartasunik ezta izan euzkaldunen artean; batek gauz bat esaten badu, bestiak, berdiñ ez egitiagatik, beste bat eskatuko du eta irugarrenak, bere anaiakin ez alkartzeagatik beste gauz bat egingo du.

Mendiak mendi diranetik Euzkadi'k izan duan askatasuna, eta euzkaldunak izan dituzten eskubideak erbeste-peratuak izan dira bi guda aundi eta gogorren ondoren. Gure asabak gogoz eta kementsu azaldu ziran beren antziñako eskubideak, Edestia edesti danetik ezagutu dan bezeia gorde nairik. ¡Baña ala ere odol asko izuri ondoren "galdu"!

Orrela gertatu eta erbeste-peratu ziran euzkotarren eskubideak, eta guztia alkartasun gutxi zeukatelako gizon andiki batsuek gudari zinizmentzu aientzako eta euzko lege zar entzako.

Urte askotxo igaro ditugu alkartasun gabe, bakoitzak bere aldetik lege zarrak biar dirala esanaz, beñere eskabidetan bat egiten eztegula, batsuek era baten biar dala, bestiak beste eran; baña ezin genzake era ortan jarrai, eldu da garaia —Elortza jaunak ezan duan bezeia—euzkaldun guztiak alkartzeko, eta dan danok juan biar degu zuzenbide bati begiratuaz gure antziñako lege zar guztiak gereganatzera.

¡Abertzaleak! Alkartu gaitezen, zoritxarrez orain ere banatuta gaude ta. Beñere bada orain da garaia dan danok alkartzeko, Euzkadi'ren azkatasuna eta euzkotarren zoriona ekartzeko.

¿Alkartuko ote gera ba euzkaldunak? ¿Ikusiko ote degu bada begi batez euzkotarren ezkubidetara nundik juan biar degun?

Ia ba euzkaldunak, abertzaletu egin biar degu danok, Euzkadi amak deitzen du ta. Gure lege zar etara juan biar degu euzko odolak eskatzen du-ta.

ELORDI.

AZKOITI

OTXANDIANO'N IGANDIAN

Arrese-Beitia abertzale zintzo (G. B.) zana, omentzera biltzen zeraten abertzale ta euzkeltzale gustieri, opa dizutet egun eder zoriontsu bat igarotzia, anaitasun batian, nik nere gogoa ta biotza zuekaz dituk bertan baniz lez, lagun onbati izkintzen zaion omen maitetsuan.

DONOSTI'N

Mateoko osatokian osatebakuntza egiña azaltzen zaigu gure lagun abertzale antzerlari Arrieta'tar Joseba Koldobika'ren anai gaste Augustin, gure nai litzake lenbailen osatuta atzera biurtzia.

NASKALDIA

Zarauz'ko uri politera Juan dira udaldia igarotzera, gure lagun abertzale Alberdi Domeka emazte-seme alabakin, Plencia'n udara alditxoa egiñik etxeratu gure lagun Zabala'tar Joseba Mirenen alaba liraiñ Agurtzane. Ongi etorri.

EZKONTZAK

Igandian eukiko dituzte len biziko deiak gure lagun abertzale Larrañaga'tar Joseba neskatza liraiñ Egino'tar Josebe'kin. ,Baita Joaristi'tar Eukeni'k neskatza polit Bergara'tar Klara'kin, aurrez zorionak artu eta esaztu garaian euzkeragaz.

Santander'tik etorrita gure artian degu ango Gotzaiñan anai jaupari agurgarri Egino'tar Koldobika, Arenas'tik etorri dira gure lagun Irureta'tar Kepa bere arreba Miren eta Goenaga'tar Gotzone neskatza liraiñekin.

EUP!

Euzko Batzokiko bazkide eta gañuntzeko abertzale danori; itxartu biar gera len bailen, gustiok dakigu eta gomutau gaitzen nola 1924 urtian iibeltzaren 27'an Españiar agintari ordezko gizon zitai txotxoloak egin zigunaz, izkillu indarrak arroturik gure bi ikurrin eder aiex oinperatu eta zu eman ta erre, baña badatorkigu eguna berriz gure ikurriña altsatutzeko, gure Euzko Batzokiko leioan, orretara gertatu biar gera aurrez, azkenerako utzi gabe egin biarrak, orrela egun ori ospatuko degu atsegin garria gure Euzkadi'ko anai arreba abertzale zintzoz bete beterik degun gure uria; noiz izango ote degun galdera egingo dute jai ori, zigur ez dakigu, dakiguna pizka pizka arreratzen ari dala, guk abertzale ta gañuntzekoak azi biar gera bakoitzak bere aldetik egin lezakiena gertatzen, antzerkia ondo litzake bi edo iru espatadantzari aldra ere bai ederki ikasita danak eta beste itzaldi bertsolari ta abar. Beste eup! bat neskatxa abertzaleari, zuek asko egin zenakezue egun ori antolatzen, biar bada gaur mutillak baño geiago, baita gure Aberri Euzkadi maitian aldez ere berdin; orretarako zer egin biar dezuten bai aldakizute, Alkartu Batzokian eta jarri euzko emakumian Batza eder aldra aundi bat, orrela gizon eta emakume danok bat egiñik gogoz eta ziñez, gure Euzkadi maitian etzaiak zapaldu eta birrindutzeko: egintzagun bada orrela eta oju aundi bat danok batera gora Euzkadi azke.

EGI ALDE.

Arrese eta Beitia ¡Gora Euzkera!

Mendi-arteko atsedenean
lenen eguzki argia
ointxe entzun da aldiguztian
donoairantzako deia.
¿Nok eztaki ba an ixan dala
bake-aldiko laztana?
Mendia beti gixonentzako
bide zuzena ixanda.

Arrokeri ta zikarkeriak
Urian euren kabiak
Au barik zeian diran dakigu
mendiak beti andiak.
yayo zalako mendi-artean
Arrese eta Beitia
Goiz, argia zan biotzez zintzo
ekandaz garbi-zalea.

Estaponarren ikastolarik
mendi arteko zelaian
zeikasbide ederrak dagoz;
zer ikasi ba'dago an
An arkitzen da ondorik eztaun
Oxin orlegi zakona
Arraiñ-gorri ta bitxi zurizko
burmots ederra daukona.

Oxin andi au garbi-guri dao
Asaban ekanduakaz
Alper ibilli miazka beti
Arrotzen *bits* zikiñagaz.
Agiri dira galant ta eder
Gauza guztien gaiñeti
Bixiko dira, nai ta ez, geugaz
¡Ezkarrak Euzkereari!

Mendietan daoz oitura onak
mendien daoz ekanduak
mencian doguz geure asaban
gabazko erretiroak.
Aintxe daukaguz edestia ta
lutelizti zoritsuak
Aintxe daukaguz yautsi eder ta
otoi eiteben lekuak.

Arrese jaunak zintzo ta sutsu
abestu erri gogoa:
Otxandio'ren semeok diadar.
¡Gora Arrese zintzoa!!!
Eskarrak oni ikusi dozu
zein dan zeure berbeitia.
¡Ein ba euzkeraz, euzkeraz zan da
Guraso zarren elea!

ZIDORRA.

ELGOIBAR

ARRESE BEITIA

Olerkari ospatsu onen omenez Otxandio uri politian egingo diran jaietara bat edo bestek, asmua badute juateko.

Onelako jaietara alduten guziak juan biar luteke

Arpidera'ko ere txanpon batzuk baditut.

Osoro'tar Gotzon, 2 laurleko; Elortza'tar Erramon, 1; Axuria'tar Kepa'ren sendiak, 2,25; Gorostiza'tar Gillelmo, 1; Larreategi'tar Joseba, 1. Guztira, 7,25.

NASTE

Ermua'tik etorrita emen dago Agirre'tar Mirentxu nexka liraña.

Algorta'ra egun batzuk igarotzera Aranberri'tar Felisa.

Ondo ibilli orko aize osasungarri ta itxasoko busti-aldi ederrak artzen.

Agurtu degu Markiegi'tar Polentzi.

Deba'n dago udaldia igarotzen Larreategi'tar Todore.

Ez etorri txingorra gogor egin arte eskolan baño obeto zagoz eta.

Azkoiti'ko Elortza'tar Axen agurtu degu.

Gaxorik dago emengo iskribau jaun Medrano Etxeberria'tar Endika.

Cuide usted
su estómago
porque es la base de
su salud

No hay estómago
que digiera mal,
si se le ayuda con
una cucharada de
DIGESTÓNICO
del Dr. Vicente
VENTA EN FARMACIAS